

LEADER PROIEKTUEN JARDUERA ONAK

1.- Egitasmoaren izenburua:

BAINUETXE ZAHARRAREN ERAIKINA EGOKITZEA ERABILERA BERRIAK EMATEKO

2.- Jasotako dirulaguntzaren deialdiaren urtea: 2018, 2019, 2020

3.- Jasotako dirulaguntzaren programaren neurria:

- II. Kap.: Ekintzailtzarako laguntzak.
- III. Kap: Enpresak sortu, handitu eta modernizatzeko inbertsiorako laguntzak.
- IV. Kap: Besteren konturako kontrataziorako laguntzak.
- V. Kap: Udalerrietako berritze, azpiegitura eta oinarrizko zerbitzuetarako laguntzak.
- VI. Kap: Etxebizitzarako laguntzak.

4. - Proiektuaren helburua:

Proiektuaren helburu nagusia da Kuartangoko bainuetxearen eraikina berreskuratzea eta erabilera berriak ematea, haranean ez ezik, eskualde osoan ere ekonomia-, gizarte- eta kultura-jarduerak sustatzeko gune bihur dadin, honako hauek eskainita:

- lan-espazioak (iraunkorrek eta noizbehinkakoak);
- komunitatearen garapena sustatzen duten gizarte- eta kultura-jarduerak garatzeko espazioak;
- tokiko gazteentzako eta, hala badagokio, kanpokoentzako etxebizitzak;
- teknologia digital berrien erabilera sustatzeko espazioak, gazteentzako nahiz adinekoentzako prestakuntza antolatuta.

5.- Inbertsio totala: 1.536.000 euro

6.- Jasotako LEADER dirulaguntza eta beste finantzaketa batzuk:

LEADER: 409.350,22 euro

Finantzatzeko beste iturri batzuk: 754.500 euro (Arabako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritza)

7.- Onuraduna:

Kuartangoko Udala

- Publikoa
- Pribatua

8.- Lankide edo entitate partehartzaileak:

Kuartangoko Udala

9.- Inbertsio edo aktuazioen lokalizazioa:

Kuartango, Araba

10.- Proiektuaren deskribapena (alde berritzaileak eta/edo proiektua interesgarria egiten duten atalak azpimarratu, proiektua jarduera onean bihurtzen dituenak):

Bainuetxe zaharraren eraikinari –1890ean eraiki zen eta 5.000 metro koadrotik gorako azalera dauka– narriadura-zantzu nabariak igartzean hasi zen proiektua. Eraikinak 25 urte baino gehiago eman ditu inolako erabilerarik gabe, eta adinekoen egoitza izateko edo ostalaritzako proiekturen bat garatzeko eskaintza ustel suertatu ondoren, birgaitzeko beharrezkoa zen inbertsio ekonomikoa izugarri handia zela baina, aldi berean, biztanle gehienak eraistearen aurka zeudela ikusita (tokiko ondare historiko zein afektiboaren sentimendu-maila sendoagatik), eraikinarentzako irtenbideren bat aurkitzea erabaki zen. Beste alde batetik, udalerrria pairatzen ari zen despopulazio-arriskua ageri-agerikoa zenez gero, eraikina berreskuratzea proposatu zen, Kuartangoko harana garatzeko eta komunitatea aktibatzeke eragile bilakaturik. Horretarako, partaidetza-prozesu bat jarri zen abian, “Urratsera/Paso a paso” izeneko, hibridazio-metodologia bat erabiliz. Metodologia hori erakundeen edo komunitateen beharrak eta erronkak eta kanpoko artista edo sortzaileen jakintza bateratzean datza, hainbat emaitza lortzeko.

Partaidetza-prozesu horretan, balizko erabilerak zehaztu ondotik, eraikina eraldatzeko prozesua gauzatzen ari da, besteak beste, lan-espazioak (Kuartango Lab), gizarte- eta kultura-jarduerak garatzeko lokalak (antzokia, Baias aretoa, besteak beste) eta *coliving* ekimena (elkarrekin bizitzeko etxebizitzak alokairuan).

Proiektuaren alderdirik berritzaileenak honako hauek dira: alde batetik, partaidetza-prozesua, gizarte-berrikuntzako ikuspegiz, jausten ari zen eraikin batentzako irtenbideak proposatu zituen; eta, bestetik, osoko ikuspegia, lurraldearen despopulazioa saihesten, biztanleriari eusten eta herritar berriak erakartzen, enplegu-aukerak sortzen, ekonomia dibertsifikatua bultzatzen eta Kuartangon eta eskualdean bizi diren pertsona guztien bizi-kalitatea hobetzen lan egiten duena.

11.- Inpaktua eta emaitzak (zein heinean proiektuak udalerrri, eskualde edo erkidegoaren garapenean lagundu duen adierazi):

Bistakoa denez, herritarrek erabakiak hartzeko prozesuan parte hartzean, gizarte-kohesioa indartu egiten da, eta biztanleriaren engaiamendua ere bermatzen da erabilerak eta proiektuak diseinatzean eta garatzean. Bestalde, proiektuak lagundu egiten du enpresak haranean finkatzen, biztanle berriak etortzen eta herrian bizi diren gazteentzako enplegu-aukerak sortzen. Gainera, eraikinaren erabileren izaera publiko-privatua dela eta, loturak sortzen dira enpresen eta herritarren artean, bai eta enpresen artean eta espazio publikoak erabiltzen dituzten herritarren artean ere, eta, horrela, komunitatea sendotzen da.

Udalerriko biztanleria % 10 hazi da 5 urtean (2018an, 389 eta 2022an, 428), eta bilakaera demografikoaren kurbaren joera aldatu egin da.

Hona hemen orain arte ondutako zuzeneko emaitza nagusiak:

- Herritarrek eraikinaren balizko erabileren diseinuan parte hartu zuten, guztira, berrogei lagunek baino gehiagok. Lehenetsuneko sei erabilera ezarri ziren.
- Eraikina sendotu egin da, eta energia-eraginkortasuna hobetu, fatxadak, itxiturak eta estalkia birgaitzeari esker.
- Eraikinak *coworking* gunea eta enpresa-mintegia (Kuartango Lab) ditu. Orain arte, bederatzi enpresa hasi dira lanean egokitutako lokaletan.
- Eraikinaren heren bat berreskuratu da, erabilera publikoko espazioak era aintzat hartuta, hala nola antzokia edo Baias aretoa (erabilera anitzeko 500 metro karratukoak).
- Kulturgintza ikaragarri zabaltzen ari da, udalak eta instalatutako enpresek antolatutako jardueren ekarpenari esker.
- Kuartango Lab gunea Labean (gizarte-berrikuntza) espazio gisa aukeratu zen, eta lanean dihardu ingurunean jarduera ekonomikoa ugariagoa sortzen duen komunitate dinamikoa eratzen.